

@@@EDIKTUA, XXXXXXXXXXXXXXXX-ri epatze-idazkia jakinarazteko diona, XXXXXXXXXXXXXXXX-k jarritako demandaren ondorioz bideratutako 736/2010 prozedura laburtua dela-eta.@@@

Ofizio honen idazpuruan adierazitako idazkia ezin izan zaio jakinarazi XXXXXXXXXXXXXXXX -ri. Horregatik, ediktu hau argitaratuz egiten da jakinarazpena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan ezarritako moduan.

Ediktu honen bidez, hau jakinarazten da: Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak, 2011ko urtarrilaren 24an, probidentzia eman du 736/2010 prozedura laburtuan, XXXXXXXXXXXXXXXX-k errekurtsio baten presuntziorako ezespenaren aurka jarritako demandan. Errekurtsio hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2010eko maiatzaren 27ko Ebazpenaren aurka jarri zen; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan 2010-2011 ikasturteko ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zuen ebazpenaren aurka.

Probidentzia horretan erabaki da ezen, errekurtsio-egileak aurkeztutako uzi guztiak baiesten baldin badira, egoera horrek eragingo dien interesdun guztiak epatzeko agindua emango dela.

Horrenbestez, aipatu prozeduran interesdun den horri dei egiten zaio adierazitako epaitegian eta prozeduran agertzeko eta pertsonatzeko, bederatzi eguneko epean, komenigarritzat jotzen badu.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 21a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,  
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.